



HIZKUNTZA GOGOAN
BEATRIZ FERNÁNDEZ

erein

HIZKUNTZA GOGOAN

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Lan honek Eusko Jaurilaritzaren babesa jaso du IT1169-19 ikerketa proiektuaren bitartez; baita Espainiako Gobernuko Zientziaren eta Berrikuntzaren Ministerioaren laguntza ere PGC2018-096380-B-I00 ikerketa proiektuari esker.

1. argitalpena: 2021ko maiatzean

Azalaren diseinua:
Jon Otxoantezana Fernández
Maketazioa:
Itxaropena
© Beatriz Fernández Fernández
© EREIN. Donostia 2021
ISBN: 978-84-9109-728-0
L. G.: D 620-2021
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
e-mail: erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.
Araba kalea, 45. 20800 Zarautz
T 943 835 008
itxaropena@itxaropena.net

HIZKUNTZA GOGOAN

Beatriz Fernández Fernández
(UPV/EHU)



*Ane Berrori eta Ane Odriari,
bizkuntzaren hamaika misterio
argituko dituztelakoan*

AURKIBIDEA

Atarikoa	9
1. Ispiluan barrena, eta Alizek han aurkitu zuena	15
2. Deabruaren baldartasuna: <i>bai, ez</i> eta eragozpen batzuk	21
3. Psammetiko erregea, bi haur jaioberri, Kaspar Hauser eta Chelsea	27
4. Anek Leari hitz egiten dionean (edo ama hizkeraz eta Platonen arazoaz)	33
5. Bazkalondoa, gizaki zatituak eta ergatibotasun zatitua	37
6. Harri bihurtutako gizona, frenologoari bi bisita, Mark Twainen eszeptizismoa eta garuna	43
7. Geu bakarrik ez	49
8. Solomon Xerexevski, sinestesia eta buba/kiki efektua	55
9. Txoriak kantari	59
10. Odiseo, Sirenen kantua eta xibarta baleek kultura irauli zutenekoa	63
11. Dabilen Burua, Malkoen Errepidea eta bizirauleak	69
12. Lujanbio eta Udarregi (edo alfabetatzearen oihartzuna garunean)	73
13. Bihotz elebiduna	79
14. Nahia Sabrina (edo lehen hizkuntza higatzen denean)	85
15. Zure buruko ahotsa	89
Oharrak	93
Aipamenak	103
Edukien eta egileen aurkibidea	113

Atarikoa

Jakin-minak zehazten du ikertzaileen lanaren norabidea. Dena delako gaiari buruz arazo bat aurkitzen da, galderak sorrarazten ditu eta erantzuna ematen zaie. Halaxe gorpuzten da zientzia. Hizkuntzalaritzan ere, hizkuntzaren inguruko arazoek hainbat galdera sorrarazten dituzte, esate baterako, zer da hizkuntza?

Batzuen ustez, hizkuntza gaitasun bat da, hitzak sortu eta elkarri lotuz hitz segidak esateko eta ulertzeko jakintza sistema bat. Hala dela uste duenak, hizkuntza gogoan edo, nahiago bada, garunean dagoela uste du halaber. Nik neuk ere ikuspuntu horretatik abiatuko dut liburu hau, nahiz eta ez den ikuspuntu bakarra, esan gabe doa. Uste horretatik abiatuz gero, gaitasun hori jaiotzez ote dugun galde daiteke, eta jaiotzekoa bada, hitzun guztientzat bat bera dela pentsa daiteke. Baina, hala bada, zergatik daude hainbat hizkuntza, euskara bera tartean, eta ez hizkuntza bat bakarra? Bestalde, jaiotzez hizkuntza gaitasun bat bera dagoela pentsaturik ere, ez dirudi hori nahikoa denik hizketan hasteko, zeren jabetu al daiteke hizkuntzaz inongo hizkuntzarekin, euskararekin edo frantse-sarekin adibidez, harremanetan egon ez den haurra? Galderen segida luzea da. Esate baterako, gaitasunaz galdezka ari garela, gu al gara hizkuntza dugun animalia bakarrak? Txinpantzeek hizketan ikas dezakete? Zerikusirik ba al du hizkuntzak txorien kantuarekin? Eta xibarta baleen kantuarekin?

Galdera hauetako batzuk eta eman zaizkien erantzunak dira liburu honetako kapituluaren mintzagai nagusiak. Sormenez

eta bereziki hitzen sormenaz dihardu lehen kapituluak, *Is-piluan barrena eta Alizek han aurkitu zuena* izenekoak. Hizkuntzak dituen ezaugarrietako bat da sormena. Hiztunok hitz egiten dugunean ez ditugu aldez aurretik entzundako hitz segidak errepikatzen; hitzak gure gogora konbinatzen ditugu eta inoiz esan eta entzun ez direnak esateko gai gara. Are gehiago, hitzak eurak ere sor ditzakegu, inongo hiztegitan jasota ez daudenak. Lewis Carrollek halakoak sortzen zituen eta bere liburuen bitartez jaso ditugu; Julio Cortazarrek ere bai. Norberak hitz horiek ikusita, sorgindurik edo gaitz baten pean ote dagoen pentsa dezake, baina ez da hala; hizkuntza-gaitasunaren sormenari esker osatu dira, zeinak hitzun guztiok sortzaile bihurtzen gaituen.

Hizkuntzen ezaugarriei buruzkoa da bigarren kapitulua (*Deabruaren baldartasuna: bai, ez eta eragozpen batzuk*). Hizkuntza gaitasun bat, bera eta unibertsala aldarrikatzen badugu ere, gaitasun horrek askotariko adierazpideak ditu, hizkuntzak eurak alegia, eta hizkuntzatik hizkuntzara aldea dago eta ez nolana hiko. Uste hori ez da hitzunena bakarrik, hizkuntzalariak ere ondo konturatuta daude-eta hizkuntzen arteko bariazioaz. Bariazio hori hizkuntzaren alderdi askotan ikus daiteke. Kapitulu honetan, bereziki bariazio morfologiko eta sintaktikoaz hitz egingo dut, hots, hitzen formek zein hitzen arteko harremanek erakusten dutenaz. Bosgarren kapituluak ere (*Bazkalondoa, gizaki zatituak eta ergatibotasun zatitua*) badu zerikusia bariazioaren gai garrantzitsu batekin, ergatibotasunarekin alegia.

Hirugarren kapituluak (*Psammetiko erregea, bi haur jaioberri, Kaspar Hauser eta Chelsea*) lehenago aipatu dudan galdera baten erantzuna dakar, hots, ea hizkuntzaz jabetu ote gaitezkeen inguruan hitz egiten digun inor izan gabe. *Haur basatien* kasuetara garamatza galderak, hots, pertsonen

artean hazi eta hezi ez diren edo besterik gabe bakartuta bizi izan diren haurren kasuetara. Kasu hauetako zenbait azalduko ditut kapituluak, hala nola, egiptoar errege batek bakartu omen zituen bi haur jaioberriena edo Chelsearena.

Ondorengo kapituluak, laugarrenak ere badu zerikusia hizkuntzaren jabekuntzarekin, eta bereziki hiztunok, hizkuntza gorabehera, haur txikiekin hitz egiten dugunean erabiltzen dugun hizkera berezi batekin, hots, *ama hizkerarekin*. *Anek Leari hitz egiten dionean (edo ama hizkeraz eta Platonen arazoaz)* du izenburu kapituluak.

Garunaren inguruko kapitulua da seigarrena (*Harri bihurtutako gizona, frenologoari bi bisita, Mark Twainen eszeptizismoa eta garuna*). Hizkuntza garunean dugula diogunean, zer esan nahi den aztertuko da baita zehazki garuneko zein eremutan kokatu izan den, nola eta zergatik.

Bestalde, hizkuntza gure espeziean baino ez dagoela uste izan da eta hala dela uste dute batzuek oraindik ere. Zazpigarren kapituluak, *Geu bakarrik ez izenekoak*, eztabaidagai hau darabil. Horrezaz gain, bederatzigarrenak (*Txoriak kantari*) txorien kantaren eta giza hizkuntzaren arteko harremanak aztertzen ditu, eta hamargarrena (*Odiseo, Sirenen kantua eta xibarta baleek kultura irauli zutenekoa*) xibarta baleen kanten ezaugarriez eta balea taldeen arteko kultura transmisio gertakari bitxi batez mintzo da. Halaber, dena ez baita jaiotzezko gaitasuna, kultura transmisioak gudan ere duen garrantziaz dihardu hamaikagarren kapituluak (*Dabilen Burua, Malkoen Errepidea eta bizirauleak*). Kultura transmisio hori eteteko borondatearekin, herri indartsuek mendeko herriei, hala nola, Kanadako Lehen Nazioetako herriei bortxa izugarria jasanarazi diete historian zehar, eta kapitulu honek ahotsa ematen die bortxa horretatik ateradiren bizirauleei.

Bestelako arazoak aztertzen dira gainerako kapituluetan. Zortzigarrenean, hizkuntzaren zeinuez eta zeinuon arbitrarioritasunaz hitz egiten da. Hizkuntzan esanahia duten hitzak ditugu, baina, adibidez, *zaldi* esanahiaren eta *zaldi* ahoskaterakoan sortzen den soinu katearen artean zein harreman dago? Arbitrarioa da? Horixe galdera nagusia *Solomon Xerexevski, sinestesia eta buba/kiki efektua* deritzan kapituluan. Alfabetatuak edo analfabetoak izatearen arteko aldeaz hitz egiten du hamabigarren kapituluak, *Lujanbio eta Udarregi (edo alfabetatzearen oihartzuna garunean)* izenekoak. Gure ama hizkuntza denak (eta ez denak) gugan sortzen duen inpaktu emozionalaz hitz egiten da hamahirugarren kapituluan (*Bihotz elebiduna*). Umetako ama hizkuntza beste hizkuntza bat ikasten dugunean galdu ote daitekeen aztertuko da hamalaugarren kapituluan (*Nahia Sabrina (edo lehen hizkuntza higatzen denean)*), eta ahotsa galdu dutenen kasua arakatuko da *Zure buruko ahotsa* izeneko hamabosgarren eta azken kapituluan.

Ikusten denez, asko dira arazoak eta, beraz, asko dira galderak. Liburuan bildu ditudanak ez dira denak, baina bai berebiziko garrantzia duten batzuk. Atal hauekin guztiekin hizkuntzaren puzzlea osatu dezake irakurleak, hizkuntzalari-tzan nahitaez trebatuta egon ez arren, berarentzat idatzi baitut liburua, ez adituentzat.

Amaitzeko, liburu honen lehen idatzaldia zuzentzen, osatzen eta hobetzen lagundu didaten ikerkide eta adiskideei ere nire esker ona adierazi nahi diet. Itziar Lakari zor dizkiot testuaren berrikusketa oso eta xehea, eta testuko gaiei buruzko elkarrizketa gogoangarria Ereaga hondartzako Igeretxan; Ane Berrok izkribuaren gaineko iruzkinak egin zizkidan idatziz eta ahoz amatasun bajatik lanera itzuli berria zela; Cecilia Fernándezek hizkuntzalari gazte baten

ikuspuntua gaineratu zuen gogoetara; Aiora Jakak berri-
kusi zituen ingelesetik euskarara itzuliak nituen testu guz-
tiak; Iñigo Ruiz Arzalluzek metrika klasikoaren gaineko
argibideak eman zizkidan; Mikel Santestebanek eta Adam
Zawiszewskik neurohizkuntzalaritzako zenbait hitz tekni-
koren gaineko xehetasunak eman zizkidaten; Nahia Sabrina
Ibarzabalek bere bizipen linguistikoak erregalatu zizkidan
hamalagarren kapitulurako; Edurne Petrirenaren kudea-
keta orduak idazketa orduak bihurtu ziren niretzat; Yolan-
da Acedok testuari formatua ematen lagundu zidan; Jon
Otxoantezanak liburuaren azala diseinatu zuen Milanen
ordu txikiei loa lapurtuz, Jacobo Eiris, Xiker Aurtenetxe eta
Iraitz Gallego gautxoriak aholkulari zituela; eta Ane Odriak,
Miren Kareagak, Bego Galdeanok eta Iratxe Labajok tes-
tuaren inguruko gogoeta partekatu zuten nirekin. Azkenik,
Inazio Mujikak eta Erein argitaletxeak egitasmoa babestu
eta argitara eman dute. Eskerrik asko, beraz, guztiei bihotz-
bihotzez. Gainerakoan, esan dezadan, ohi den bezala, libu-
ruan egon daitekeen edozein akats nirea baino ez dela.

1

Ispiluan barrena, eta Alizek han aurkitu zuena

Bat-batean etortzen da edonon zaudela, edozertan ari zarela. Ez du kontuan hartzen lanean ari zaren, ikaslez mukuru betetako gelako oholta gainean hizketan edo autobusaren barruan, txartela ordaindu berri leihotik begira. Egun lanbrotsuan eguzkitako antiojoak jarrita ere, argitasun zuri itsugarri batek zeharkatzen ditu antiojoen lenteak eta jarraian, zure begiak. Bidaiari gazte berez zaratosoen elkarrizketa ozenak dezibelioetan gora egiten du irratiko esatariarekin lehia arriskutsuan, zarata nahas-mahas, eta entzungarria ez dena ere entzun dezakezu, hala nola, paperezko txartela eskuetatik isuri eta lurraren kontra, plaust, jotzen duenean. Ordurako, distirak agertzen hasiak dira han eta hemen, gimnastikalari batek airean astindutako zinta luze eta buztan kiribildukoak balira bezala. Usain gaiztoa ere aditzen duzu, sarkorra, autobuseko garbikaria eta eguerdi berantiarrera arteko izerdi nekatua nahasten dituen. Eta goragalea sentitu orduko, bizkarzorrotik ateratzen duzu baldarki abioietan inork erabili ez eta zuk geroaren zain metodikoki erreskatatzen dituzun poltsa horietako bat. Aura da.

Lewis Carroll ezizenaz ezagutzen dugun Charles Lutwidge Dodgson¹ migraina auradunak omen zituen.² Bere egunkarian jaso zuen «gotorleku mugikorrek» ikusarazten zizkion gaitz optiko arraro batek erasan ziola buruko mina baino lehen. Egunkariko kontakizunez gain, bere liburuetan Alizeri gertatutakoak ere Dodgsonen auraren zantzutzat jo izan dira,

hala nola, Alize ikaragarri txikitzea, *edan nazazu* zioen botila txikitik edan eta gero, edo kontrakoa, izugarri handitzea, *jan nazazu* zioen pastel txikia jan ondoren. Zeren aura bitartean, migraina pairatzen duten gaixo batzuek inguruko gauzak tamainaz aldatzen direla sentitzen dute, batzuetan handituz (*makropsia* deritzana) eta beste batzuetan, berriz, txikituz (*mikropsia*). Alize Lurralde Miresgarrian *sindromea*³ deritza honi literatura teknikoan, Dodgsonen liburu ezagunenaren aipamena eginez. *Ispiluan barrena, eta Alizek han aurkitu zuena* etorri zen gero.

Ispiluaz bestaldean zebilela, Alizek liburu bat aurkitu zuen ezagutzen ez zuen hizkuntza batean idatzita zegoela iruditu zitzaiona. Ulertu nahi eta ezinik, halako batean konturatu zen *ispilu-liburu* bat zela, hots, hitzak atzekoz aurrera idatziak zituena. Beraz, ispiuaren aurrera eramanez, ispilu-liburuko hitzak artez jarri ziren eta Alizek *Jabberwocky*⁴ izeneko poema irakurri zuen. Halaxe zioen bere lehen (eta azken) ahapaldian:

Erretzaldea zen, eta tobo likiarintsuek
Jiroskopatu eta ginbaletatzen zuten aitzingibelelan;
Borogoboak guztiz misehulak ziren,
Eta errata etikek txiliozentzen zuten.

Poema, migrainaren auraren beste zantzu miresgarri bat ez ote den pentsatzen has gintezke, euskaldunak izan arren, euskaraz ezin ulertzera garamatzana. Zeren zer ote da *erretzalde*? Zer *tobo* eta zer *likiarintsu*? Zer dira *jiroskopatu* eta *borogobo*? Zer *misehul*? Alizek dioen bezala, ulertzen zaila da, polita izan arren. Sakelakoa atera eta Egungo Euskararen Hiztegian⁵ begiratu genezake badaezpada euskara jasoko hitz ezezagunak ote diren zalantzatan. Orotariko Euskal Hiztegi⁶

jo genezake ondoren, hitz zaharrak, testu klasikoetatik atereak izan litezkeelakoan. Alferrik: ez batean ez bestean dago ez *jiroskopatu*, ez *borogobo*, ez *misehul*, ez antzeko ezeren arrastorik. Hitz batzuen kasuan, beren barruko hitz txikiagoen esanahia zein den badakigu. Esaterako, *ginbalet* zuloak egiteko erreminta bat da. Hortaz, asmaketan hasita, litekeen da *ginbaletatu* ginbalet batez zuloak egitea izatea, eta hara, arrautza itxurako Humpty Dumptyk horixe bera dela dio Alizek *Jabberwocky* poemaren esanahia argitzen laguntzeko eskatzen dionean (handik kapitulu batzuetara).⁷ Hitz horrena ez ezik, beste zenbait hitzen esanahiaren gaineko xehetasunak ematen ditu Humpty Dumptyk, hala nola, *likiarintsu* hitzak *arin* eta *likitsu* batera adierazten dituela. Jatorrizko liburuan, *portmanteau* hitza darabil Dodgsonek historian lehenengoz (morfologian oraindik ere erabiltzen dena), *likiarintsu* hitzak bezala, hitz beraren barruan bi esanahi paketatzen dituen hitz mota bat adierazteko. Halakoxea da *misehul* hitza ere, *ahul* eta *miserable* alegia. Astiro-astiro argituko dizkio Humpty Dumptyk poemako hitzen ezkutuko esanahiak Alizeri.

Alabaina, Humpty Dumptyk hitz horien beste ñabar-dura batzuk alde batera uzten ditu Alizek berak erraz asma ditzakeelako beharbada. Esate baterako, *likiarintsu* hitza bi esanahi paketatuz sortzen dela jakin gabe ere, Alizek bada-ki adjektibo bat dela, batetik izen baten (*tobo* izenaren) eskumatara kokatzen delako eta bestetik, *-tsu* zatia daramaten beste adjektibo batzuk daudelako euskaraz (*argitsu*, *zaratatsu*, *usaintsu*...). Alizek badaki, bestalde, *ginbaletatzen* aditz baten forma bat dela, *ginbaletatu* aditzarena alegia, *-tzen* isatsa aditzek bakarrik eramaten dutelako eta bere eskumatara dagoen *zuten* hitzak aditzei laguntzen dielako. Harrigarria da *zuten* hitza, baita *zen* eta *ziren* ere, zeren hiztegi batean gordeta aurkitzea espero ez dugun arren, poemako esaldien hezurdura

eraikitzen du. *Aditz laguntzailearen* formak dira hirurak. Gainerakoan, *borogobo* zer den ez daki Alizek, baina badauki, ordea, borobogoak bat baino gehiago direla borogoboak nolakoak ziren irakurtzen duenean (*-ak* isats salatariak eta *ziren* pluraleko formak adierazten diote hori). Nahi beste hitz asma litezke, *Jabberwocky* poemaren idazleak edo Dodgsonek asmatu zituen bezala, baina hitzen formak aldarazten dituzten ezkutuko arauak eta hitzak elkarri jostekoak, horiek ezin asmatuzkoak dira eta zintzoki bete beharrekoak.

Hiztegi hitza entzunaz batera, gogora datozkigu oraintsura arte gure apalategietan lerratzen diren liburukoteak, kasu batean baino gehiagotan, ale bakarra ez, ez bada bi edo bitik gora ale dituztenak. Halaber, hitzarekin batera bururatzen zaizkigu aspaldion sarean kontsulta ditzakegun hiztegiak, inoizko handienak, nahiz eta euren neurri fisikoaz ohartzen ez garen. Hiztegi horiek guztiak, handiak izan arren, gordailu mugatuak dira, amaiera dutenak. Aldiz, gogoan ditugun hiztegiak mugagabeak dira, hitz asmatzaile etengabeak, sormenari esker, beren burua elikatzen dutenak, nahi beste hitz eta gehiago sorraraz ditzaketenak. Gogoan ditugun hiztegiak benetako hitzak ez ezik balizkoak ere biltzen ditu, eta nahikoa da Dodgson bezala hitzak sortu nahi dituen norbait, balizko hitzak benetako hitz bihurtzeko. Alabaina, *zuten* edo *zen* bezalako hitzak, horiek ez dira nahieran asmatzen.

Aura da, bai. Botaka egiten duzu, oraingoan autobusean, abioiko poltsa sendoan; beste batzuetan, berriz, tren geltokiko nasan, poltsarik gabe; kalean, gordelekua dirudien baina ez den bazter batean; Urnietako kanposantuko hormaren kontra behin; fakultateko komunetan, goiko zein behekoetan, zenbat aldiz? Eta erromesaldi zorabiatuaren ostean, ohera heldzea lortzen duzunean, burua burkoaren gainean jiraka eta biraka, loaldi luze minberan, itsasoa behar lukeena ur masa beltz bat

da begi itxien barruko ametsean ere begiak ixtera eramaten zaituena irents zaitzan baino lehen.

Azkenik, bat-batean ezinezkoa dirudienean, kitto, amaitu egiten da. Tentuz begiratzen duzu ingurura badaezpada, halako batean isats kiribilduko distirak berriro agertuko diren beldurrez, baina ez, distirak desagertu dira eta eurekin batera, usain sarkorra eta zarata jasangaitza. Ispiluaz bestaldetik hona itzuli zara, eta hala ere, hitz zentzugabeak edo zentzu berriko hitzak asmatzen segi dezakezu, Dodgsonen *Jabberwocky* poeman bezala.

Deabruaren baldartasuna:
bai, ez eta eragozpen batzuk

Askotariko gauzak irakurri ditugu euskararen gainean eta ez dira gutxi bere ustezko zailtasunari buruzkoak. Bai, zenbat aldiz entzun ote dugu euskara zein hizkuntza zaila den eta zein zaila den, beraz, euskara ikastea? Bada, zailtasun hori erakutsi nahi duten pasadizoen artean bitxienak beharbada zerikusia du deabruak euskara ikasteko izan zituen zailtasunekin. Haxe dio pasadizo horietako batek:

«Harrigarritzko eder da hizkuntza, arroka soilak bezala eusten du mendeak zehar inguruko erromantzeen itsas gora, zailtasun ospearekin. Euskaldunak eurak atseginez agertzen dute deabruak berak ezin ikasizkotzat, zazpi urteren buruan, *bai* eta *ez* esaten baizik ez baitzuen ikasi. Bi hitzok ere ahaztu omen zituen Sant Izpirituko zubia igarotzean».¹

Pasadizoaren arabera, euskara hizkuntza ederra da; frantsesa edo gaztelania bezalako hizkuntza erromantzeek inguraturik egon arren, mendeetan zehar bizirik iraun du –alde horretatik denok pozik eta konforme–, baina hara, hain hizkuntza zaila denez, deabruak ikasi nahi eta zazpi urte luzez jardun ondoren, bi hitz baino ez zituen ikasi (*bai* eta *ez*) eta horiexek ere ahaztu zitzaizkion Baionako Sant Izpirituko zubia igaroaz batera. Deabruak ezer gutxi ikasi zuen, beraz, eta ikasitako apurra ere berehalakoan ahaztu zitzaion.

Pentsatzen hasita, beharbada deabruaren baldartasunak, hots, euskara ikasi nahi eta ezin izateak zerikusia izan lezake

euskara bere ama hizkuntza ez bezalakoa izatearekin. Deabrua ez garenok jaiotzez hizkuntzaz jabetzeko sen bera dugu (eta jo dezagun horixe bera esan daitekeela deabruaz ere), eta hizkuntza guztiak sen berari zor bazaizkio, orduan pentsatzekoa da elkarren antzekoak direla. Alabaina, hizkuntzatik hizkuntzara badago alderik, hau da, ezberdintasunak ere bada dira eta ez nolana hikoak. Horrek eraman ditu hizkuntzalariak honelako edo bestelako hizkuntzez hitz egitera zein ezaugarri dituzten kontuan hartuz. Hizkuntzalari horiek *hizkuntza tipologia* dihardute eta ezaugarri tipologikoei esker sailkatzen dituzte hizkuntzak.²

Gauzak hala izanik, beharbada deabruak euskara ezin ikasteak zerikusia izan lezake gure hizkuntzak berez dituen ezaugarri tipologiko batzuekin, ikasteko eragozpen bihurtu zitzaizkionak. Esate baterako, tipologoen lan eskerga egin dute hizkuntzako osagaiak –horrela deituko diet– perpausean erakusten duten hitz hurrenkera aztertzen. Jo dezagun perpaus honetara: *Deabruak sagarra jan du*. Momentuz *du* aditz laguntzailearen forma alde batera utziko dugu eta gainerako hitzei begiratu diegu. *Jan* aditza da, eta aditz horrekin batera adierazi beharra dago nork jan duen zer. Nork jan duen adierazten duena *subjektua* dela diogu, deabrua alegia, eta deabruak jan duena, berriz, *osagarria* (sagarra).

Begiratu orain nola ordenatzen ditugun osagai horiek emandako perpausean: ezkerretik hasita, lehenik *deabrua* jartzen dugu, ondoren *sagarra* eta azkenik *jan*, hots, lehenik subjektua, ondoren osagarria eta azkenik aditza. Eta emandako perpausean, osagaiak erakusten duten hurrenkera hori bera da euskaraz dagoen oinarrizko hurrenkera, hots, Subjektu-Osagarri-Aditza. Ez du horrek esan nahi, jakina, euskaraz bestelako hitz hurrenkerarik ez dagoenik. Adibidez, *sagarra jan du deabruak* edo *sagarra deabruak jan du* edo *jan du*

deabruak sagarra. Perpaus hauetan guztietan, bestela ordenatu ditugu osagaiak, eta perpaus jatorrak dira, ondo eraikiak. Alabaina, hurrenkera arrunta, hau da, baiezko perpaus batean aurkitzen duguna guztien artean Subjektu-Osagarri-Aditza da euskaraz.

Euskaraz bezala, badira oinarritzko hurrenkera bera duten beste hizkuntza batzuk, hala nola, japoniera, koreera edo latin klasikoa, baina beste hizkuntza batzuek subjektua, osagarria eta aditza perpaus batean ordenatzerakoan, oinarritzko beste hurrenkera bat ematen diete: osagarria aditzaren eskuinetara jartzen dute, eta hortaz, Subjektu-Aditz-Osagarri hurrenkera dute. Hala da, adibidez, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez, eta ondorioz, hizkuntza hauetako hiztunentzat euskaraz dena dago atzekoz aurrera, munduan gauzak irauli balira bezala. Oso litekeena da, beraz, *deabruak* euskara ikasteko izan zituen eragozpenetako bat gauzak ordenatzeko modua izatea: *Euskara neuk ikasi? Dena atzekoz aurrera esaten dute-eta!*

Hitz hurrenkera alde batera, hizkuntzek badute modu bat adierazteko perpaus batean nork jaten duen zer edo, nahia-go bada, zein den *egilea* eta zein *gaia*. Euskaraz, *deabruak sagarra jan du* badiogu, munduaz dugun jakintzak diosku deabrua dela sagarra jan duena, hots, *egilea*, eta *sagarra*, berriz, *deabruak jan duena*, *gaia* alegia. Baina badaezpada, gure hizkuntzak berak ere adierazten du nork jan duen zer: *deabruari* marka bat jartzen zaio, *-k* marka, eta horrela ez dago zalantzarik (batez ere inork sagar deabru-jale bat imajinatuko balu): *deabrua da sagarra jan duena*. *-K* hori kasu marka bat da eta *ergatibo* izena du, irakurleak beharbada dagoeneko dakien bezala. *-K* marka benetan mesedegarria da *egilea* eta *gaia* deabrua eta *sagarra* baino antzekoagoak direnean eta zentzu komunak, beraz, nondik jo argitzen ez digunean.

Esate batera, jo dezagun deabruak sorgin batekin topo egiten duela Baionako Sant Izpirituko zubira heldu aurretik. Orduan, aukera bi genituzke: edo sorginak deabrua jatea edo deabruak sorgina jatea. Ergatiboak aterako gaitu ataka zailetik: *-k* daramana izango da egilea, eta markarik gabe gelditzen dena, gaia: *Deabruak sorgina jan du* badiogu, deabrua da egilea eta *sorginak deabrua jan du* badiogu, aldiz, sorgina. Egilea adierazten duen kasu marka duten hizkuntzei *ergatiboak* deritze, euskara bera edo inuitera adibidez, eta egileari markarik gaineratzen ez diotenei hizkuntza *akusatiboak*, hala nola, gaztelania eta frantsesa. Deabruaren ama hizkuntza ergatiboa izan balitz, ez zukeen horrenbeste eragozpenik edukiko euskara ikasteko. Inuitera zenik ez dirudi, deabrua definizioz hozkila delako eta Baionara horren urrutitik ere ez zelako etorriko. Beharbada, besterik gabe hizkuntza akusatiboko hitzuna zen. Hala balitz, eragozpen bi izango zituzkeen gutxienez: bata gauzak iraulitako hurrenkeran jarri beharra, hots, Subjektu-Osagarri-Aditz hurrenkerari segituz, eta bestea egileari *-k* jarri beharra bere ustezko ama hizkuntza akusatiboko joerari muzin eginez.

Ez da hori bakarrik. Deabruak euskara ikasi nahi izan balu, ikasiko zukeen aditz guztiak ez direla aditz laguntzaile berarekin jokutzen (gogoratzen zara *Jabberwocky* poemako aditz laguntzaileez?): *jan du* diogunean, *du* hitz txikia aditz laguntzaile baten forma da, baina sagarra jan eta gero deabruak itzalpean etzatea erabakitzen badu, orduan *deabrua lokartu da* esango dugu, ez *lokartu du*. Hori da, hain zuzen, euskaraz aditz laguntzaile bera ez delako baliatzen aditz guztiak jokatzeko. Horretaz gain, deabruak ikasi beharko zukeen ez dela aditza berdin jokutzen, sagarra jaten duena deabrua bera bada (*jan du*), zeu bazara (*jan duzu*) edo neu banaiz (*jan dut*) ezta sagarraren ordeaz sagarrak direnean

(*jan ditu*) edo sagarren ordez ni (*jan nau*); ezta lokartzen dena deabrua bada (*lokartu da*), zeu bazara (*lokartu zara*) edo neu banaiz (*lokartu naiz*). Hori hala da euskaraz ageriko *aditz komunztadura* dagoelako. Gaztelaniaz ere, aditz laguntzaile horren forma aldatu egiten da subjektuaren arabera (*yo he comido, tú has comido, él/ella ha comido*, eta abar). Baina beste hizkuntza batzuetan, ingelesez adibidez, bakarrik bereizten dira hirugarren pertsonako subjektuak dituzten adizkiak gainerakoetatik (*he/she/it has eaten* vs. *I/we/you/they have eaten*), eta hori orainaldian baino ez.³ Pentsa, beraz, deabru gizajoari euskal aditzak jokatzeko eskatu baliote, Casablancan Ilsak Sam piano-jotzaile ahaztezinari eskatu zion bezala: *Sam, jo(ka) ezak behin, aspaldiko garaiengatik*. Deabruak ikaratuta *ezin dut gogoratu* erantzungo zukeen, baina ez Samek bezala, *jo(katu)* nahi ez zuelako, benetan gogoratzen ez zuelako baizik.⁴

Ez nau harritzen, beraz, deabruak euskara ezin ikasteak horrenbeste eragozpenen aurrean. Sant Izpirituko zubia igaro orduko, *bai* eta *ez* ahaztea, ordea, gehiegitxo iruditzen zait. Nago ez zirela izan euskararen ezaugarri tipologikoek sortutako eragozpenak deabruak saihestu ezin izan zituenak, euskara ikasi duten eta ikasten ari diren hiztun saiatuek askotariko ama hizkuntzak dituztelako: batzuk Subjektu-Osagarri-Aditz oinarrizko hitz hurrenkerakoak dira, euskara bezala, eta beste batzuk Subjektu-Aditz-Osagarri hurrenkerakoak; batzuk akusatiboak eta bestetzuk ergatiboak; ageriko aditz komunztadura dutenak eta ez dutenak, eta abar. Oso litekeena da, beraz, deabruak euskara ezin ikastea mito bat izatea, euskararen zailtasuna mito bat den bezalaxe.

Laburbilduz, hizkuntzen artean badira ezberdintasunak –oinarrizko hitz hurrenkerarekin zerikusia dutenak, egi-learn markapenarekin zerikusia dutenak eta abar–, eta

ezberdintasun horiei begira, hizkuntzalariak hizkuntza motak bereizten dituzte. Hizkuntza berri bat ikasten dugunean, zenbat eta gure ama hizkuntzaren antzekoagoa izan, orduan eta errazagoa izango da ikastea. Alabaina, ezberdintasunak ezberdintasun gutako edozeinek ikas dezake beste hizkuntza bat –itxuraz deabruak ez bezala–. Hizkuntzaren ezaugarriak eurak ere izan litezke oztopo, baina ez, inola ere, oztopo gaindiezinak.

**Psammetiko erregea, bi haur jaioberri,
Kaspar Hauser eta Chelsea**

Herodotok *Historiako*¹ bigarren liburuko bigarren paragrafoan dioenez, Psammetiko –ahoskatu *sametiko*–, euren errege bihurtu aurretik, egiptoarrek uste zuten eurak zirela gizateriaren herririk zaharrena. Psammetikok hori jakiteko beste bideirik ez zuenez, ondoko plana asmatu zuen. Guraso arruntak zituzten bi haur jaioberri eman zizkion artzain bati bere abereen artean haz zitzaizen «behin ere hekien aitzinean hitzik mintzagabe, nihor entzunez, hitzketan ikhas etzezaten gatik». Eta hona hemen arrazoia: «zeren iduritzen baitzitzaioen haurrak berak elkarren artean zenbait hizkuntzaz, edo bederen zenbait hitzez mintzatuko zirela; eta halako hitzkuntza ahal zatekeela Munduan izan zen lehenbizikoa». Joanes Etxeberri Sarakoaren² hitzak dira, edo Agustin Hiponakoarenak saratarraren ahotan.

Haur haiek ahuntzen artean hazi zituzten bi urtean zehar, inoren hitzik aditu gabe. Halako batean, baina, abeltzainak etxolako atea ireki zuenean, «haurtto hek, erran zuten hitz bat doidoia, eta hitz hura zen “bek”». Abeltzainak hasieran hura entzun arren, isilik gorde zuen gertaera, baina orduz gero, arreta jarri eta haurrei hitz bera behin baino gehiagotan entzun zenez, Psammetiko erregearengana eramane zituen biak eta bere aurrean ere hitz bera esan zuten. Psammetikok orduan galdetu zuen ea gizakien artean nork deitzen zion *bek* zerbaiti, eta jakin zuen frigiarrak halaxe deitzen ziotela ogiari. Ikerketatik ondorioztatu zuen, beraz, frigiarrak zirela herririk

zaharrena, egiptoar herria bera baino zaharragoa, eta frigiera lehen hizkuntza.

Herodotok dio halaxe entzun zuela berak istorioa, baina greziarrek kontatzen zutela, beste istorio zoro batzuen artean, Psammetikoren aginduz mingaina moztu zieten zenbait emakume izan zirela haurrak zaindu zituztenak. Ez dut azpimarratuko, zazpiki honek, ahuntzen eta emakume mihigabeen babespeko zaintzaren arteko aldea, Herodotok ez baitu esaten greziarren kontakizunaren amaiera beste bat izan zenik. Utz dezagun, beraz, dagoen-dagoenean.

Psammetikoren experimentua deitu izan dena dirudiena baino sofistikatuagoa da (bihozgabea ere bai, esan gabe doa), eta Joanes Etxeberri Sarakoak aitortzen diona («da froga bat, Erregek bere gogoan zerabilan gauzaren jakiteko deusik frogatzen ez duena») baino gehiago erakusten du. Batetik, Psammetikok inplizituki uste du haurraren garapenak (*ontogenia*) erakutsiko diola zein den giza espeziearen bilakara (*filogenia*), eta hori dudarik gabe, sotiltasun handiko ustea da. Handik mende batzuetara, XIX. mendean zehazki, Ernst Haeckelek *Laburbiltzearen teoria* aldarrikatu zuen *ontogeniak filogenia laburbiltzen du* lelopean, eta aldeak alde, funtsean ideia bera du oinarri Psammetikoren esperimentuak.

Beste alde batetik, Psammetikok edozein hizkuntzatatik (eta edozein gizabanakorengandik) bakartzen ditu haurrak eta esperimentua burutzeko baldintzak ondo kontrolatzen ditu, emaitzak *kutsatu* ez daitezen egin ohi den bezala, eta haurrak bakartuta eta hortaz, kanpoko estimulu linguistikorik jaso gabe eduki arren, hasierako zarata esanahirik gabeen ondotik, hizketan hastea espero du. Horrek esan nahi du Psammetikoren ustez, badela edozein hizkuntzarekin harremanetan hasi aurretiko *hizkuntza* bat, haurraren gan berez sortzen dena. Berarentzat giza espeziearen lehen hizkuntza

da hori, munduko zaharrena alegia, gaur egun nekez defenda litekeen ustea. Alabaina, badago uste hori berrinterpretatzea esanez haurraren sortzez dagoen *hizkuntza* hori dela gizakiok espezie berekoak garen aldetik partekatzen dugun jakintza. Jakintza horri esker munduan dauden hizkuntzetatik edozeinekin jabetu gaitezke, Noam Chomsky amerikar hizkuntzalari eta pentsalariak uste duen bezala.

Ikuspuntu honetatik begira, Psammetikoren aierua iradokitzaile bezain zuzena da. Hori bai, badirudi Psammetikok sortzezko hizkuntza jakintza nahikotzat jotzen zuela haurrak hizketan hasteko, eta hori, jakina denez, ezinezkoa da: kanpoko estimulu linguistikorik gabe, hots, hizkuntza jakineko hitzuneekin harremanetan sartu gabe, nekez jabetu gaitezke hizkuntzaz. Hortaz, arrazoi du beharbada Joanes Etxeberriek dioenean «nihork bere baitharik ez(bait)du hitzkuntza jakinik». Inork ez du berez hizkuntza jakinik, arrazoi, baina bai hizkuntzaz jabetzeko beharrezkoa den gaitasuna, eta gerora «bertzetarik entzunez eta adituz, ikhasten da mintzatzen eta bat-bedera zein-ere herritan eta jenderen artean haurdanik hazten baita, hango hitzkuntza hartzen du». Sortzezko gaitasunik gabe, beraz, euskaldunik ez da, baina ez da euskaldunik ere euskararekin harremanetan egon ez denik sortzezko jakintza izan arren. Eta euskalduna diodanean, jakina, munduko beste edozein hizkuntzatako hitzuna esan nezake.

Psammetikoren esperimentuari *Kaspar Hauserren esperimantua* ere deitu izan zaio. Kaspar Hauser Nurenbergen agertu zen 1828ko maiatzeko egun batez. Hamasei bat urteko gaztea zen, baserritarrez jantzita zegoena. Nekeak jota zegoela zirudien; nekez egon zitekeen zuzen zutik. Ez zen gai egiten zizkioten galderak ulertzeko eta erantzun gisa etengabe errepikatzen zituen ondoko hitzak: «Zaldizkoa izan nahi dut nire aita bezala».³ Gose eta egarri zen arren, haragiak eta garagardoak

nazka ematen zioten, ogia eta ura besterik ez zuen nahi. Gerora jakin zuten Kaspar Hauser ziega batean bakartuta eduki zutela eta gizakiekin harremanik izan gabe hazi zutela harik eta Nurenbergen agertu zen arte. Hauser, historiak jaso duen *haur basati* bat da. Ez zuen adimenik falta, baina hizkuntzaren oinarriak ikasi arren, irakurtzeko eta idazteko beste bai bederen, ez omen zuen inoiz alemanez erdietsi haurtzarotik hizkuntzarekin harremanetan egon denaren jakintza mailarik.

XX. mendeak antzeko beste kasu batzuk eman dizkigu, hala nola, Genierena. Genie umetatik nerabe izan arte, ia hamalau urte izan arte, bakartuta eduki zuten etxean bere gurasoek eta tratu bihozgabea eman zioten. Susan Curtiss hizkuntzalari amerikarra ingelesez hitz egiten irakasten saiatu zen arren ia zortzi urtean zehar, Geniek ezin izan zuen hitz egiten ikasi hiruzpalau hitzeko esaldi urriak gorabehera.⁴ Garai hartakoa da Eric Lenneberg biologo amerikarraren *aro kritiko* edo *aro sentiberaren* hipotesia.⁵ Hipotesi horren arabera, hizkuntzaz jabetzeko aro bat dago nerabearora arte luzatzen dena, zeinetan hizkuntzarekin harremanik izan ezean, hortik aurrera ez dagoen hizkuntzaz jabetzerik. Askoren ustez, aro kritikoaren hipotesia baieztatzeko aukera eman zuen Geniek, baina badira uste dutenak ez dagoela argi Genie hizkuntzaz ezin jabetzea zor ote zitzaion aro kritikoan zehar hizkuntzarekin harremanik ez izateari edo bestela umetan jaso zuen tratu lazgarriari. Kasu eztabaidagarria da beraz.

Alabaina, benetan jakin nahi badugu zer gertatzen den inork hizkuntzarekin harremanik izan ez badu harik eta aro kritikoa igaro arte, orduan kasu guztien artean beharbada adierazgarriena Chelsearena da.⁶ Chelsea Kaliforniako landa-inguruko herri batean jaio eta hazi zen; zazpi seme-alaben artean bigarrena zen familia maitekor batean. Chelsearen lehen hilabeteetan zehar, bere amak susmatu zuen umea gorra zela

eta Kaliforniako Gorrentzako Eskolara eramane zuten diagnostiko bila. Zoritxarrez, ez zioten gortasunik diagnostikatu eta ez zuten eskolan onartu. Ondorioz, Chelseak ez zuten inongo irakasbide formalik jaso.

Halako batean, 32 urte zituela, herriko zerbitzu sozialen bitartez, azterketa audiologikoa eta neurologikoa egin zizkioten Chelseari eta deskubritu zuten gortasun sakona zuela. Ondorioz, audifonoak jarri zizkioten eta entzumen maila ia normala lortu zuen. Alabaina, Chelseak inoiz lortu ez zuena izan zen esaldi gramatikalak sortzea. Esate baterako, ingelesez, Subjektu-Aditz-Osagarri (SAO) hurrenkera dago, baina Chelseak hurrenkera hau inola betetzen ez duten esaldiak sortzen zituen, ondoko hauek bezala:

<i>Breakfast eating girl</i>	(Gosari jaten neska)
<i>Combing hair the boy</i>	(Orrazten ilea mutila)

Lehenak Osagarri-Aditz-Subjektu (OAS) hurrenkera du eta bigarrenak Aditz-Osagarri-Subjektu (AOS) hurrenkera, ingelesez hurrenkera arruntari lotzen ez zaizkionak.

Chelseak, bestalde, preposizioa (P) bere osagarriaren ezkerretara eman beharrean (preposizioa-osagarria), alderantziz ematen zituen batzuetan:

<i>Orange Tim car in</i>	(Laranja Tim auto P)
<i>The boat sits water on</i>	(Txalupa egon ur P)

In preposizioa *car* autoaren ezkerretara agertu beharko litzateke lehen adibidean eta *on* preposizioa ere *water* hitzaren ezkerretara (*on water*) bigarrean.

Izen bereziei determinatzailea (D) gaineratzen zien eta ausaz erabiltzen zituen aditz jokatuak:

They are is car in the Tim (Haiek dira da auto P D Tim)

Tim izen bereziari *the* determinatzailea jarri zion azken honetan, guk euskaraz *Tima* edo *Anea* esango bagenu bezala... Ezinezkoa. Bestalde, *izan* aditzaren bi adizki jokatu jarri zituen bata bestearen atzean: *are* 'dira' eta *is* 'da', eta hori ere ezgramatikala da.

Esaldi hauek eta Chelseak sortzen zituen beste askok erakusten dute lehen hizkuntzaz jabetzeko aro kritikoa dagoela. Chelseak hitz asko eta beren esanahiak ikasi zituen, baina ez zuen inoiz gramatkarik ikasi.